

BALOREZKO PROPOSAMENAK:

Gure "Heatseat"-ak hainbat behar edo arazo konponduko ditu. Batez ere, ikastetxeetan, institutuetan eta unibertsitateetan hotzarekin jasaten dituztenak murrizteko daude pentsatuak. Coronavirusa dela eta, lehioak ireki behar dira, korrontea sortzen da eta ikasle zein irakasleak hoztu egiten dira. Horregatik, ikasle zein irakasle asko kezaka aritu dira ikasturtean zehar; hori dela eta, produktu hau sortu dugu.

Esan beharrik ez dago bezero asko edukiko ditugula. Ez da beste inor egon hau bezelakorik sortu duena eta egoera honetara egokitu den beste enpresarik. Gainera, ikastetxe bat gure bezero egiten bada, milaka aulki salduko ditugu, eta errentagarria dela esaten badute, geroz eta ikastetxe gehiagok erosiko dituzte. Azkenik, aulki hauen prezioa bere kostuekiko errentagarria izango da eta denen eskura egongo da.